

# *Hobe isilik*

Garbiñe Ubeda

1936ko Gerran ibili eta gero, II. Mundu Gerraren amaieran Frantzia desagertutako Miguel Bermejo aitona miliziano anarkistaren arrastoaren bila hasten da haren biloba Bakartxo. Inoiz ezagutu gabeko aitona harentzako gutunek osatuko dute eleberria, eta bertan, bilaketaren gorabeherekin batera, familiaren historia berreraikiko da, eta baita hainbat gogoeta harilkatu ere.

Kazetaritzan ibilbide luzea duen arren, haxe du Garbiñe Ubedak lehen saialdia fikzioaren munduan, eta azpimarratzekoa da testuaren kalitate linguistikoa, estilo landu eta dotore bat duena, baita pertsonaien taxuera ere, sinesgarri eta ñabarduraz betea. Ondarroako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako Augustin Zubikarai beka-sariaren irabazlea izan zen nobela-proiektu hau.



Garbiñe Ubedari elkarrizketa “Hobe isilik” eleberriaren inguruan  
Garbiñe Ubeda kazetariak [Hobe isilik](#) eleberria kaleratu du. Kazetaritzan ibilbide luzea duen arren, haxe du lehen saialdia fikzioaren munduan, eta azpimarratzekoa da testuaren kalitatea, estilo landu eta dotorea, baita pertsonaien taxuera ñabarduraz betea ere. Ondarroako Udalak eta [Elkar argitaletxeak](#) antolatutako [Augustin Zubikarai beka-saria](#)ren irabazlea izan zen nobela-proiektu hau.

## **Aspaldidanik zabilta euskal prentsan lanean, eta muinetik ezagutzen duzu gure kultura; kronika eta saiakerak ere idatzi dituzu; zerk eraman zaitu orain fikzioa lantzera? Zer du fikzioak beste idazlan mota batzuek ez dutena?**

Sortzeko askatasuna, errealitateari edo egiari estuki lotu behar ez izatea, sentimenduen bidetik trabarik gabe jo ahal izatea. Horixe du, nagusiki, fikzioak.

Liburuan aurkeztu dudana istorioa kontatzeko, errealitateak, datuek, zehaztapenek, frogak, ez dute balio handirik berez, ezin dutelako gertatutakoaren zergatia esplikatu. Egia aho biko ezpata da, eta protagonistak subjektibotasunean bilatu beharko du gauzen logika.

## **Fikzioa idatzi duzula esan dugu, eta hala da, baina oinarri biografikoa duena hala ere. Zertan dira antzeko eta zertan desberdin Jose Ubeda eta Jose Bermejoren ibiliak?**

Esentzian, bat bera dira. Nolabait esanda, Jose Bermejorena gure aitona desagertuarentzat imajinatu dudana profila da, haren ezaugarri orokorrak ditu, eta haren ibiliak ez ziren nobelan kontatu ditudanetatik oso urrun geldituko. Nolanahi ere, hainbat pasarte, familiari dagozkionak bereziki, asmatuak dira guztiz; eta asmatuak ez direnak ere terjibertsatuta daude, moldatuta edo aldatuta, nobelaren koherentziaren mesedean. Misterioitsuak dira biak, bai gure aitona, baita Bermejo ere, gerrako belaunaldien izaera dute: isilean gordetzen dute dena, konplexuegia zaie ordukoa, hitzez arrazionalki adierazi ahal izateko.

## **Aurretik zure anaiek ere landu zuten gai hau, [Non dira](#) diskoan. Lan hura bultzatzaile izan duzu, ala zuk ere lehendik zenuen gogoan eleberri hau idaztea?**

Gurean deskalabru handiak eragin zituen gerrak. Txikitatik sentitu dugu hondamendi hartan sortutako oinazea, aurreko belaunaldiek bezala gure larruan bizi izan ez genuen arren; eta handitu garenean, hainbat modutara azaleratu da min hori: anaia zaharrenen antimilitarismoa, Bide Ertzeanekoen *Non dira* diskoa... *Hobe isilik* nobela heldu da orain, baina ziur naiz min hark beste espresibiderik ere aurkituko duela gerora ere, etxekoen artean.

Guretzat, bultzatzaile edo eragileren bat nabarmentzekotan, *Navarra 1936: de la esperanza al terror* liburua aipatuko nuke. Gure amesgaiztoak eta galtzaileei gertatutako triskantzak argitaratuta ikusteak aztoratu eta motibatu egin gintuen. Zedarri handia izan zen, dudarik gabe.

## **Artikulu ugari idatzitakoa zara. Zertan da desberdina eleberri bat idaztea?**

*Berria* egunkarirako idatzi nituen artikuluak fikziozko istoriotxoak ziren orobat. Haiekin alderatuta, esaterako, luzera da kontuan hartu beharreko lehen alde. 100 piezako puzzlea bukatzea edo 3.000koari heltzea bezalatsu da. Zenbat eta handiago izan osatu beharreko irudia, orduan eta konplexuagoa da lana, orduan eta elementu gehiago hartu behar dira kontuan, pieza guztien batasuna lortzeko. Neurri motzean ohituta nengoen. Handira jotzea, nobelaren dimentsioan murgiltzea erronka handia izan da niretzat.

### **36ko gerrak oraindik zuku gehiago emango du? Asko edo gutxi landu da gaia zure ustez? Ala teknikak eta ikuspegiak izango dira berriak?**

Sartagudako Memoriaren Parkea inauguratu zenetik, familia osoa joan ohi gara hara udazkenean, gerraren ondorioz galdu genituenak gogoratzeko. Urtero sentsazio berbera izan ohi dut harrian zizelkatuta ageri diren izen horiek denak irakurtzean: izen-abizenak ez ezik, horietariko bakoitzaren historiak ageriko tokia beharko lukeela, eta kasurako, nobela bana osatzeko adina emango luketela. Beste horrenbeste pentsatzen dut Sartagudako herriaz ere, eta Memoriaren Parkeaz arduratzen direnez ere. Han daude beti, Jose Ramon Martinez alkate ohia bezala, noiznahi bisitariei azalpenak emateko prest.

Gizakiaren makurkeria norainokoa izan litekeen erakusten dute gerrek; motorra berotzen denean, ezer gutxi aski dugula, izendatzea ere kostatzen den basakeria eragiteko. Eta bidegabekeriaren ondorioak luzaz ordaintzen direla, arrasto likatsua uzten dutela. Baina gauzak horrela izanik ere, eta herriz herri memoria berreskuratzea ezinbestekotzat jotzen dudan arren, neronek ezin izango nieke gertaera gordinei heldu. Suntsiketaren horroreak edo lazturak erotu egiten nau, eta blokatu. Biziraupenari jarri diot lupa. Biziraupena bera ere heroikoa izan bailiteke.

<http://postdata.elkar.com/es/2013/11/07/>

ELKARRIZKETA HITZEN UBERAN

<http://www.uberan.org/?agenda/item/garbine-ubedaren-hobe-isilik-liburuaren-aurkezpena>

SAUTRELA ELKARRIZKETA ikusteko:

[http://www.eitb.com/eu/bideoak/osoa/1795674/bideoa-garbine-ubedaren-hobe-fikziozko-  
eleberria/](http://www.eitb.com/eu/bideoak/osoa/1795674/bideoa-garbine-ubedaren-hobe-fikziozko-eleberria/)

**Hobe isilik / [Garbiñe Ubeda](#) / Elkar, 2013**

Ondua balego bezala Aritz Galarraga / *Deia*, 2014-01-04

Garbiñe Ubedaren lehen eleberri laburraz aipatu izan den lehen gauza izan da, hain zuzen, horixe, lehen eleberria izan dela. Eta lehen eleberria izan dela ez hogeitertekin publikatutakoa, baizik eta gutxi batzuk gehiagorekin. Ondo. Xehetasun hori nabarmentzeak ditu bi irakurketa, nire ustean, zalantzarik: batetik, eta kazetari gisa esperientzia zabala duenez Ubedak, eta, beraz, testugintzan eskarmentu handia, idazkuntzaren bi alde izan daitezkeen kazetaritza eta literaturaren arteko gehiegizko banaketa —kontuan izanik kazetaritza ez dela bat eta bakarra, ez eta, noski, literatura—. Eta bestetik, Ubedak modu nasaian ulertutako literaturan egin dituen sartu-irtenak aintzakotzat ez hartzea, batez ere *Mila ezker* saiakera oso gomendagarria —azkar esateko, ezkertasunaren hainbat konturi buruzkoa, eskuinok ere gustura asko irakurtzeko modukoa—.

Baina *Hobe isilik* da hemen larrutu beharrekoa. Eta, beste ezer baino lehen, esan beharra dago zaila dela eleberri horren haria askatzea, egin gabe *spoiler* gaitzesgarririk. Saia gaitezen minimoa esaten: Bakartxo narratzailea lehen pertsonan mintzo zaio II. Mundu Gerraren ondotik desagertu zen aitonari, Jose Bermejo Zabaletari, behinola Altsasuko trenbideko behargin iraultzailea izan zenari; haren oroitzapenari, haren desagertzearen xenda jarraitzen duen bitartean. Familiaren tatxa da, mantxa, bizitza osoan izan dute gogoan. Bakartxok jakin nahi du: noiz desagertu zen, nora, galdu ote zen erabat eta benetan. Eta sorpresa hartuko du bilaketa horretan. Hainbestekoa, esateraino: errazagoa zela “gudari desagertu heroikoa izan zinen garaia”, esplikagarriagoa. Eta nik uste, horrekin aski dela.

Gauza da ikerketa hari interesgarri hori alde batera utzita ere, edo hari interesgarri hori alde batera utzita batez ere, agertzen direla kontakizuneko gauzarik interesgarrienak. Anekdotak itxuraz hutsalen atzean hausnarketa benetan jakingarriak, pitxi txikiak, ematen du esan gabe esaten diren kontu horiek guztiak. Bat oso adierazgarria, gainontzekoen berri ematen ahal diguna: ikastolan dago narratzailea, haur, eta ikaskideak zortzi abizenak buruz eta segidan esatea proposatu du. Bakartxok, nahiz bikain esango lituzkeen bere zortziak, isilik pasa nahi luke, arrotzegiak direlako ia erdiak. Ez dira jatorrak, ez dute pedigririk, ez dute bertako labelik. Jarraian dator kolpea: “Ikaskideek artean ez dakite, artean ez dakigu, gutartasuna mamia dela, azala baino gehiago. Nire aberriak zerupe zabalagoa du orain”. Ba hori.

Garbiñe Ubedaren lehen eleberri laburraz esan den beste gauzarako bat izan da 36ko gerrari buruzkoa dela, eta gaia gehiegi (sic) erabili delarik, irakurlea dagoeneko neka daitekeela testuaren aurrean. Eta hori esan duenak, iruditzen zait, beste liburu bat irakurri duela, nik irakurri dudana gandik. Ze, bai, 36ko gerraz hitz egiten da, noski, II. Mundu Gerraz ere bai, baina berdin hitz egiten da familiaren baitako zauriez, presentziek baino absentziek duten garrantziaz, memoriak sortzen dituen haize bolada zakarrez, sekretuak edukitzeko eskubideaz edo beharrianaz, biziraupenaz, denik eta pertsonarik zintzoenak daukan ifrentzuaz. Eta hori denori egiten du *Hobe isilik* lehen eleberri labur honek —mamia, tempoa, neurria—, urte luzetako esperientziarekin ondua balego bezala.

**Hobe isilik / Garbiñe Ubeda / Elkar, 2013**

Hobe, ez hilen izenean Mikel Asurmendi / *Berria*, 2013-12-22

“Hobe isilik. Bai horixe!”, barrundatu dut nobela labor hau irakurrita. Kasik hurrupa bakarrean irentsi dut. Aise. Gustura, baina artega. Izerdia azalarazi didan istorioa duzu: motz, zehatz eta trinkoa. Narratzaileak atezuan atxiki nau hastetik finitu arte. Ba al dago idazleari gehiago eskatzerik? Idazlearen potentzialtasuna —fikziozko lehenbiziko lana du— eskergea iruditu zait.

“Egia ezagutzea” duzu nobelaren leitmotiva. 75 urte ezkutuan daraman gertakariak inarosten du narratzailea. Espainiako Gerra aspaldikoa izan arren, aitonari gertatutakoa ezagutu ez izanak gogogabetzen du iloba. Jose Bermejo Zabaletaren desagertzeak gauero iratzartzen du Bakartxo. Gogoz eta soseguz biziko bada, gertatu zena argitu beharra dauka. Aitona non, nola eta zergatik desagertu zen ezagutu ezean, ez da bakerik izango haren ondorengoentzat.

Lehen pertsonan narratua da. Iloba zuzen eta artez mintzo zaio aitonari. Bakartxoren bakarrizketek maitasuna eta samina isurtzen dituzte. Aitona miliziano anarkistaren nortasuna bizi helarazten digu narratzaileak: “Egiak ez dira besterik gabe loratzen”. Egiaren bilaketa jardun latza baita, “baita egiaren peskizan ongi idaztea ere”, pentsarazi dit irakurketak.

Memoria historikoaren gaineko saioak, onak —eta beharrezkoak— izanagatik, ez dira aski ezkutuko egiak argitzeko. Historiako gertaera lazgarriak, arruntenak ere, imajinagaitzak dira. Fikzioak are gehiago hurbilarazi gaitzake iraganeko gertakarietara, baldin eta intrigaz eta suspensez narratuak badira. Horixe du dohain *Hobe isilik* nobelak. Narrazioaren tentsio neurritsuak (h)istori(o)arekin lotzen zaitu, ilobak aitona bizirik mantentzen dizu irudimenean. Narrazioa —film baterako gidoi iradokigarria— irudiz eta aburuz ehunduta dago, inplizitu eta esplizitu adieraziak, doituak eta orekatuak. Pertsonaiak labor baina taxuz dira deskribatuak, filigranarik gabe gorpuztuak. Thriller xume ongi burutua kausitu dut.

Bakartxok dokumentazio lana egiten du Joserren arrastoan. Iragan errealearen zantzuak sumatuko dituzu, alabaina, berauek istorioaren kontaketa bikain txertatu ditu narratzaileak. Egiazko gertaera baten peskizan fikziora ekarri du familiaren historia. Beren larruetan pairatutako gertaera izanik, fikziozko istorio sinesgarria kontatu digu. *Hobe isilik* nobelak lasto zama gutxi dakar, adjektiboak neurrian, hitz hanpatuak albora utzita. Betelanik ez daukan istorioak lana erruz eskatzen du horregatik. Ezaugarri horiek ez dira idazlan (h)onen berme bakarra, noski. Irakurlea istorioari lotuko bazaio, idazleak kontatu nahi digunarekiko enpatia sorrarazteaz gain, narratzailearen berariazko senak gidatu behar du istorioa. Bakartxo protagonistak sena badauka, halakoxea du ere Bakartxoren baitan dagoen Ubeda idazleak.

Baina bakarra: nobela errealtatean —neurri batean— funtsatua den aldetik, idazlea hurbilekoa ez dutenentzat hobeto. Nik amiñi bat ezagutzen dudalako diot. Hala ere, erruz eta minez “gozatu” dut.

Nobelak gogoeta ahalbidetzen du. Hona nirea: misterioen —ezkutuko gertaerak— mamuak uxatzeak aldaraz ditzake gure usteak. Literatura onak itauntzen gaitu: “Ba ote egia, benetan agertzerik?”. “Gure izenean?”. “Hildakoen edo desagertuen izenean?”. Sekretuak ezagutarazi ezinak dira usu, gorde beharrezkoak ezinbestean. Egia osoa aurkitzea mingarria da, eta sekretuak zabaltzea ere zenbaitetan.

Sekretuak ezkutuan gorde ohi ditugu egia zabaltzearen beldur. Sekretuak ezkutatzea mingarria da, baina egia ezagutarazteak ez digu erabateko sosegurik ematen. Dilema horrekin bizi gara.

**Hobe isilik / [Garbiñe Ubeda](#) / Elkar, 2013**

Galtzaileen memoria Javier Rojo / *El Diario Vasco*, 2013-12-06

Gerra Zibilaren ingurukoak kontatzea literaturan gure artean aurki daitezkeen korronterik inportanteenetako bat bihurtu da azken urte hauetan. Garbiñe Ubedak *Hobe isilik* izenburua duen bere lehenengo nobela honetan bide horretatik jotzen du. *Hobe isilik* lehenengo nobela badu ere, horrek ez du esan nahi idazleak ez duenik idazketan eskarmenturik, kazetaritza lanetan aritzen baita eta kronika eta saiakeraren arloan koka daitezkeen liburu eman baititu argitara. Baina kazetaritzatik datorren arren, esan behar da beste idazle batzuek ez bezala Garbiñe Ubedak idazketa estiloan ere jartzen duela arreta. Nobela honetan lehenengo pertsonan hitz egiten digun pertsonaia-narratzailea bere aitonaren irudiaren bila abiatzen da. Berak ez zuen ezagutu. Gerra Zibilean galtzaileen alderdian aritu ondoren (anarkista zen aitona), Frantziara pasatu zen eta han galtzen dira bere aztarnak. Izeba batek gordetako eskutitz batzuk dira aitonaren bizitza berreraikitzen hasteko dauzkan osagaiak eta haietan oinarritzen da bere bilaketan aritzeko.

Honen jardunak ikusgarriak izan daitezkeen bi ezaugarri dauzka, bata, kontamoldeari begira eta bestea, haren motibazioak azaltzeko-edo balio duena. Izan ere, narratzaileak aitonaren irudia eraikitzen duen bitartean bere gainean sortu duen irudiarekin dago hizketan, aurrean izango balu bezala. Bestelde, motibazioa dago: osagai misteriotsu bat agertzen zaigu, narratzailea aitonaren aztarnen atzetik ibiltzera bultzatzen duena... odolaren deia, nolabait esateko. Eta honelako narrazioetan gertatzen den bezala, familian gordetzen diren sekretuekin egiten dugu topo, aurreko belaunaldiek gordeta eduki nahi zituztenak azaleratzen baitira.

Galtzaileen memoria eraiki nahi du idazleak eta dudarik gabe *Hobe isilik* gustura irakurtzen da. Arrisku bakarra du: gaia gehiegi erabili delarik, irakurlea dagoeneko nekatuta aurkitzearena.

# Abioian

2015-05-19 / Garbine Ubeda

Senar-emazteek eta 15 urteko alabak Portlanderako hegazkina hartu dute Houstonen, etxera itzultzeko. Abiatu eta apur batera, amak, alabarengatik kezkatuta, jaki berorik ekarriko ote liokeen eskatu dio laguntzaileetako bati, eta hark, tamalez ezetz, ordainduta ere ezingo liokeela eman, pribilegio hori lehen klasekoek besterik ez dutelako, arauz. Amak gogor egin dio halere, neskatilak hainbat ordu eman baititu jan gabe, eta autista izaki, eta sabel hutsak sortzen dion ondoeza hitzez adierazteko gauza ez denez, urduri jar litekeela eta bakarren bat eragotz lezakeela argudiatuta. Laguntzaileak onartu egin dio eskaera. Denak pozik. Eta lasai.

Ordu erdiren buruan, baina, hitza hartu du hegazkin-gidariak. Bidaiari batek jarrera arazoak omen dituelako eta «ezinegona sortzen diolako», larrialdiko geldialdia egingo duela iragarri du megafoniaz, eta minutu eskasetan, Salt Lake Cityn lurreratu direnean, neskatila eta gurasoak hegazkinetik jaistera behartu ditu hango poliziak. Gainerako bidaiariak familiaren alde atera dira, amak, txundituta, enbarazurik egin ote duten galdegin duenean. Alferrik. Segurtasuna aurreiritzi makurrenen labe bilakatu denetik, ez baita subertsiboagorik, antza, dirudunen jaki apurra bigarren klaseko haur bati eman beharra baino.